

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3226

EBAZPENA, 2019ko ekainaren 3koa, Gazteriako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartrukerako jarduerak 2019an garatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2018ko azaroaren 7ko Aginduaren babesean 2019an bideratutako zenbatekoa eta emandako dirulaguntzen zerrenda.

Kontuan hartu da Gazteriako zuzendariaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dela, horixe xedatzen baitu 2018ko azaroaren 7ko Aginduaren 18.2 artikulua.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Argitaratzea Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2018ko azaroaren 7ko Aginduaren babesean ekitaldi honetan onartu diren dirulaguntzen eta onuradunen zerrenda. Lehenengo eranskinean dago jasota informazio hori.

2. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, denak jakinaren gainean egon daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 3a.

Gazteriako zuzendaria,
AGURTXANE LLANO CUADRADO.

2019ko uztailaren 1a, astelehena

I. ERANSKINA

Erakundea	Egitasmoa	Dirulaguntza
Asociación Socioeducativa Kiribil Sarea	Innovación en la dinamización juvenil 2019	7.226
Güeñeseko Udala	Gaztetruke Enkarterri – Bulgaria Express 2019	6.595
Ayuntamiento de Karrantzako Udala	Gure Herria Birmoldatzen	6.175
Balmasedako Udala	Gaztetruke Enkarterri – Bulgaria Express 2019	7.914
Balmasedako Udala	Gaztetruke Nueva Aquitania Harrera 2019	3.884
Club Barrena Berri	Deporte y Salud, Factores Motivacionales	5.153
Federación Euskalerriko Eskautak Federakuntza Trebeak	Eskautak Mundura	5.616
Fundación EDE-EDE Fundazioa	Gaztedrive: Oportunidades de movilidad juvenil en Europa	10.871
Gatikako Udala	Gatika – Nazioarteko Elkartrukea I	4.813
Gaztetxo Eskola	Kulturtruk 2019	17.480
Hezkide Eskola	Partekhartu	6.811
Kaeb-Nai Kultur Arteko Ekintza Berria	Movilizando en Europa el potencial de la juventud de Euskadi	27.338
Kilimiliklik Kultur Elkartea	Engaiamendua	4.000
Kilimiliklik Kultur Elkartea	Gure Sustraien Bila	5.000
Kilimiliklik Kultur Elkartea	Nor naiz, nortzuk gara?	4.500
Kilimiliklik Kultur Elkartea	Sare soziala danger!!!	4.000
Kilimiliklik Kultur Elkartea	Aintzineko Leiendak eta Tradizioak	4.000
Kilimiliklik Kultur Elkartea	Kirolaren Indarra	3.000
Lemoako Udala	Kaixo – Hei	10.412